




LIBURUA

Miranderekin zer egin



GAUAZ PARKE BATEAN JON MIRANDE

ELKAR, 1984

ARITZ GALARRAGA

Tarte honetan berean, orain zor-tzi urte inguru, debate ezdeus bat ebazten saiatu ginen: Martin Ugalde, Gabriel Aresti, nor izan ote zen ipuina literatur genero moderno gisa landu zuen lehen euskal idazlea. Ebazten saiatu baino planteatu egin genuen, lehena nor izan zen ez baita sobera garrantzitsua; bai, ordea, jakitea garai bertsuak kezka bertsuari erantzun bertsuak ematen saiatu zela idazle bat baino gehiago. Hirugarren izen bat falta zitzaion konpetizio absurdu hari, ordea: Jon Mirande. Hori ematen digu aditzera *Gauaz parke batean* bildumak.

Azpituluan *Ipuin izugarriak*, eta Patri Urkizuren edizioan, jasotzen dira “han-hemenka sakabanatuta zeuden ipuinak, *Herria*, *Euzko Gogoa*, *Gernika* eta *Egan* aldizkarietan”; bi sailetan

banatuta: itzuliak eta asmatuak, “elkarrekin harremanik baldin badute ere”. Interesgarrien guretzat hemen asmatuak –nahiz, Eduardo Gil Berak esan bezala, “*fue un excelente traductor*”–, 1951-1963 artean argitaratuak. Bi *leit-motiv* darabiltzate, Urkizuren arabera: “Bat ia kontu guztietan: Izua. Bestera Irlanderako itzulpenean: Aberria”. Gil Berarentzat, aldiz, “*morir y matar*”, horiez dihardute ipuin guztiek –“*excepto uno que trata de la nostalgia*”–. Ametsa izenburuko ipuinak, esaterako, zeinean gizon batek bere emaztea akabatzen duen: “Zerendako ez zuen ulertu nahi ez zuela hark gaiztakeriaz joiten, maitate zuelakotz baizik?”, irakur daiteke bertan. Eta gauza goitikagarri gehiago. “Idazleak bere nahigabe bat fantasmazten du”, dio hitzaurreak.

Funtsean betiko debatea baitago, Miranderekin zer egin. Kezka ez da gaurkoa, ea inork literatura ona egin dezakeen eta, era berean, eta besteak beste, “*antidemócrata y racista*” izan. Afera zahar eta arantzatsua, artearen eta moralaren arteko harremanez hitz egitera behartzen gaituena, obraz eta berai sortu duen gizabanakoaz. Mirande idazle handi bat dena, aldiz, zalantzarik ez da, eleberri ahaztezin baten egile, XX. mendeko euskal idazle garrantzitsuenetakoa. Joxe Azurmendiren hitzekin esateko: “Hain txairo zen euskal literaturara Europako haize berrien igurtzea dakarkigute bere poema eta ipuinek”. Hartara, haren obraren bindikapena egiten jarraitu beharko genukeela iruditzen zait. Eta batez ere irakurtzen, lehen eskutik ahal dela. ●